

Mikel Aramendi

(Kazetaria)

Petrolio erreserbak eta Iraken aurkako gerra

Bistan da Bushen administrazioak Iraki erasotzeko erabiltzen dituen argudio ofizialak (arma debekatuak edukitzea, nagusiki) ez dituela ia inork, ezta Estatu Batuetan ere, oso aintzakotzat hartzen. Horiekin batera iritzi publikoari helarazi zaizkion arrazoiek (91n erdizka utzi zena

Bushek Iraki erasotzeko erabiltzen dituen argudio ofizialak ez ditu ia inork oso aintzakotzat hartzen, ezta AEBetan ere

Debate haren benetako gakoa, ordea, enpresa eta herrialde ekoizleek eskaintako erreserba-kopuruen egitasuna onartu ala gaitzestean zetzan. Baikorre-

Nondik norako zerikusia duen horrek Irak erasotzeko asmoekin? Aski zuzena eta berehalakoa. Usu erabiltzen diren zifren arabera, munduko bigarren herrialdea da Irak bere petrolio erreserben tamainagatik, Saudi Arabia soilik duelarik aurretik. Iraken erreserbek, handiak izateaz gain, gainera, beste bizpahiru berezitasun dituzte. Alde batetik eta 91ko gerraren ondorioz, inolako errebisiorik ez dute izan iragan hamarkada osoan... munduko beste herrialde gehienetan nabarmen hazi direnean, paperean behintzat. Bestalde, jakina da hamarkada horretan Irakek normalki ustiatuko zukeen petrolio baina arras gutxiago ekoiztu duela, 91an ezarri

Une honetan Ameriketako Estatu Ba-
tuetakoa Etxe Zuria eta Pentagonoa bere
esku duen gizataldeak zerbait sakon
eta zabal ezagutzen badu, petrolioaren mun-
dua da zerbait hori, zalantzarik gabe.
Bush-tarrak ez ezik, Cheney, Rumsfeld
eta inguruko besteak petrolio-gizonak
dira, zainetan odolaren ordeaz gesal bel-
tza daramatenak. Agintera iritsi aurretik
iragarri zituzten egitasmo deigarrieneta-
ko batzuek (Alaskako natur-ingurune
preziatuenetan ustiaketari ekiteko
proiektuek, esate baterako), hala nola
Irailaren 11koaren ondoren nola edo
hala Iraken aurkako eraso bat bideratze-
ko egin dituzten ahaleginek ondotxo era-
kusten dute petrolioaren industriaren in-
guruko kezka iraukorki aldaraezin
bat. Beraiek jakingo dute, guk baino ho-
beto, zerk kezkatzen dituen horrenbeste-
raino.

**Hidrokarburoen
salneurria etengabe eta
kasik geometrikoki igoz
joango deneko aldiaren
atarian gaude**

Izatezko bikoteak legearen zain

(Aurreko orrialdetik dator)

UPNrengan izan ezik. Testuaren edukari bagagozkio, gai hauek nabarmenduko nituzke: bikoteentzako errolda autonomiko bat eratuko da, orain arte sortutako udal errolden osagarri gisa; bikoteen harrernan ekonomikoak araupetu ahal izango dira; euskal funtzionarioen lan es-

kubideen alorrean berdintasuna ezartzen da bikote mota guztien artean; hala-ber, zerga arauetan berdintasuna aldarrikatzen da, nahiz eta hori gauzatzeko Lurralde Historikoetako foru arauak aldatu beharko diren Batzar Nagusietan; euskal foru zuzenbide zibila indarrean dagoen lurralde eremuetan herentziari dagokionez izatezko bikoteen partaideak ezkon-

tideekin berdintzen dira; eta, esan bezala, izatezko bikoteak adopzioan eta akogimenduan parte hartzea ahalbidetuko da. Ezkontza eraientzari buruzko gai inportante batzuk ez ditu aurreikusten lege proiektuak (hala nola, gizarte segurantzaren gaineoak, pentsioak, nazionalitatea etab.), Estatuaren eskuduntzapekoak direlako. Bukatzeko, eta sintesi moduan, adierazi nahi nuke izatezko bikoteei buruzko euskal legeak justizia eta berdintasuna ekarriko dituela ezkondu gabeko bikoteen eremura. Halaber, orientazio ho-

mosexuala duten pertsonen duintasuna-
ri gutxieneko onespena emango zaie.
Baina ez da aski. Gay eta lesbianen ber-
dintasunari mugarik jarri nahi ez bazaio,
ezkontzeko eskubidea onartzea derrigo-
rrezkoa gertatzen da, Holandan eta Bel-
gikan egin duten bezala. Baina hori ere ez
da aski izango, homofobiak oraindik in-
dar handia baitu, eta hori gizartearen
errotetik desagerrarazi arte gay eta les-
bianek ez dute bere harreman afektiboak
askatasunez bizitzeko behar bezalako
aukerarik edukiko.